

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MELLEDESKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzea, eta 2022ko lehenengo seihilekoko ordainagiriak borondatezko epean kobratzeko moduan jartzea

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa (2022ko lehenengo seihilekoa) ordaindu behar dutenen errolda egin da, baita 2022ko uztailaren 14an onetsi ere. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliiodun jarriko da jendaurrean errolda hori, interesdunek aztertu eta egokiak iruditutako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesa dutenek administrazio batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedienteak.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikulua 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarreko errejidore-lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik adierazitako epean barruan.

Ordaintzeko borondatezko epea 2022ko urriaren 31n hasi eta abenduaren 30ean bukatuko da, bi egun horiek barne direla.

Helbideratutako ordainagiriak 2022ko abenduaren 15ean kobratuko dira.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Administrazio batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez duten zergadunei beren zerga egoitzara bidaliko zaie zor duten zenbatekoa ordaintzeko behar duten agiria.

Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo da.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Mellede, 2022ko irailaren 27a

Lehendakaria

JOSE MIGUEL BERMEJO GALINDO